

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako erdi mailako euskara teknikarien lanpostu bat, gehienez ere, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko sarrera-prozeduraren deialdia.

Deialdiaren lege-erreferentzia: 2778/2022 Ebazpena, urriaren 24koa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzurako erdi mailako euskara teknikarien lanpostu bat, gehienez ere, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko sarrera-prozeduraren deialdia, hori guztia enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko egonkortze-prozesuen esparruan (2022ko azaroaren 14an argitaratua, 224. NAOñ).

OPOSIZIO FASEKO PROBA

Proba mota: 4 aukerako test galdetegia

Galdera kopurua: 53

Proba egiteko denbora: 2 ordu

Probaren balioa: 60 puntu

Iruñean, 2023ko irailaren 1ean

**EZ JOAN HURRENGO ORRIRA,
HAS ZAITEZKEELA ADIERAZTEN EZ BADIZUTE**

1. Espainiako Konstituzioaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera:

- a) Gorte Nagusiei dagokie legeak berronestea eta aldarrikatzea.
- b) Gorte Nagusiek Estatuaren funtzio exekutiboa eta erregelamendu-ahala gauzatzen dute.
- c) Gorte Nagusiek Espainiako herria ordezkatzeko dute, eta Diputatuen Kongresuak eta Senatuak osatuak dira.
- d) Denak dira zuzenak.

2. Europako Parlamentuko diputatuak:

- a) Estatu kideetako estatuburuek edo gobernuburuek hautatuko dituzte bost urteko agintaldi baterako.
- b) Zuzeneko sufragio unibertsal aske eta isilpeko hautatuko dira, zazpi urteko agintaldi baterako.
- c) Estatu kideetako estatuburuek edo gobernuburuek hautatuko dituzte zazpi urteko agintaldi baterako.
- d) Zuzeneko sufragio unibertsal aske eta isilpeko hautatuko dira, bost urteko agintaldi baterako.

3. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren arabera:

- a) Gaztelania eta euskara dira Nafarroako hizkuntza ofizialak eremu guztietan.
- b) Euskarak hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan eta lege organiko batek eskualde horiek zehaztuko ditu.
- c) Euskarak hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan eta foru lege batek eskualde horiek zehaztuko ditu.
- d) Euskarak hizkuntza ofizialaren maila izanen du Nafarroako eskualde euskaldunetan eta foru dekretu batek eskualde horiek zehaztuko ditu.

4. Nafarroako Parlamenturako hauteskundeei buruzko 16/1986 Foru Legearen arabera, Nafarroako Parlamentua:

- a) 50 foru parlamentarik osatuko dute.
- b) 60 foru parlamentarik osatuko dute.
- c) 65 foru parlamentarik osatuko dute.
- d) 70 foru parlamentarik osatuko dute.

5. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen arabera, Nafarroako Gobernua osatzen dute:

- a) Kontseilariak, zuzendari nagusiek, zerbitzuko zuzendariak, atalburuek eta bulegoburuek.
- b) Lehendakariak eta kontseilariak.
- c) Lehendakariak, sailburuek, zuzendari nagusiek eta atalburuek.
- d) Kontseilariak.

6. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen arabera:

- a) Hitzarmenak dira ondorio juridikodun kontratuak, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, helburu ekonomiko bat lortze aldera.
- b) Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin sinatuak, xede komun bat lortze aldera.
- c) Hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek soilik beren artean sinatuak, xede komun bat lortze aldera.
- d) Hitzarmenak dira jarduketako protokolo orokorrak edo antzeko tresnak, baldin eta eduki orokorreko asmoen deklarazio hutsak badakartzate edo administrazioek eta alderdi sinatzaileek helburu komun batekin jarduteko duten borondatea azaltzen badute, betiere haien ondorioz ez bada konpromiso juridiko zehatz eta eskatzeko modukorik formalizatzen.

7. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-Sektore Publiko Instituzionalari buruzko 11/2019 Foru Legearen arabera, zein dago Foru-Sektore Publiko Instituzionaletik kanpo?

- a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publikoko edozein erakunde publiko eta entitate.
- b) Zuzenbide pribatuko entitateak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde publikoei eta harekin lotutako edo haren menpeko zuzenbide publikoko entitateekin lotuta edo haien menpe daudenak. Entitate horiei aplikatuko zaizkie beroriei buruzko aipamen zehatza egiten duten foru lege honetako arauak; eta, betiere, administrazio-ahalak erabiltzen dituztenean.
- c) Nafarroako Unibertsitate Publikoa, haren berariazko araudiak eraenduko duena eta, modu osagarrian, 11/2019 foru legearen xedapenak.
- d) Nafarroako Parlamentua, haren berariazko araudiak eraenduko duena eta, modu osagarrian, 11/2019 foru legearen xedapenak.

8. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen arabera, aukerako berraztertze-errekurtsoa:

- a) Administrazio-bidea amaitzen ez duten administrazio-egintzen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar daiteke eman zituen organoaren hierarkian goragoko mailakoan.
- b) Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza espresua bada.
- c) Errekurtsoaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete izango da.
- d) Berraztertze-errekurtsoaren ebazpenaren aurka beste berraztertze-errekurtsoa jar daikete.

9. Langile Publikoen Estatutua arautzen duen 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren arabera, funtzionarioak ondoko egoeretan egon daitezke:

- a) Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan, eszedentzian edo eginkizun-gabeturik.
- b) Jarduneko zerbitzuan, behin behineko zerbitzuan, ikasketa-lizentzian, edo ikerketa-lizentzian.
- c) Ohiko zerbitzuan, eszedentzian, amatasun-lizentzian edo behin behineko zerbitzuan.
- d) Ohiko zerbitzuan, zerbitzu berezietan, eszedentzian edo enplegu gabetze zerbitzuan.

10. Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen arabera, zerbitzu-kontratuaren definizioa da:

- a) Zerbitzu-kontratua da xede hau duena da: produktuak erostea, haien errentamendu finantzarioa, haien epekako errentamendu edo salmenta, erosteko aukerarekin nahiz gabe.
- b) Zerbitzu-kontratua da obra- edo hornidura-kontratuaren xedeaz bestelako bat daukana, eta horren bidez enpresa edo profesional bati enkargatzen zaio prezio baten truke zerbitzu bat ematea; halaber, halakotzat hartuko dira adjudikazio-hartzaileak zerbitzua hurrenez hurren eta prezio unitarioan exekutatzeke betebeharra bere gain hartzen duenekoak.
- c) Zerbitzu-kontratua obra kontratuaren xede bera duena da, baina honela ordaintzen dena: obra ustiatzeko eskubidearekin soilik, edo eskubide hori gehi prezio bat emanez, eta eragiketa-arriskua emakidadunari eskualdatuz.
- d) Zerbitzu-kontratuaren xedea da obrak exekutatzea, edo haien proiektua egin eta exekutatzea, batera.

11. Gardentasun araei dagokienez, zein entitate pribaturi aplikatuko zaie 5/2018 Foru Legea, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa?

- a) Urtebetez 2.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuei, edo jasotako laguntzek edo diru-laguntzek entitate horien urteko diru-sarrerara guztien %10 egiten badute gutxienez, baldin eta gutxienez ere 1.000 euroko kopurura iristen badira.
- b) Urtebetez 20.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuei, edo jasotako laguntzek edo diru-laguntzek entitate horien urteko diru-sarrerara guztien %20 egiten badute gutxienez, baldin eta gutxienez ere 5.000 euroko kopurura iristen badira.
- c) Europar Batasunetik urtebetez 4.000 euro baino gehiagoko laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate pribatuei.
- d) Entitate pribatuei ez zaie inoiz lege hau aplikatuko.

12. Datu Pertsonalen Babeserako 3/2018 Lege Organikoaren arabera, adingabe baten datuen tratamendua:

- a) Guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularren adostasunean oinarrituko da bakarrik.
- b) Berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da 16 baino gehiago baditu, ez bestela.
- c) Berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da 14 baino gehiago baditu, ez bestela.
- d) Legeak ez du baimentzen adostasunean oinarritutako datuen tratamendurik egitea.

13. Zein da, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen arabera, genero-arrakalaren definizioa?

- a) Tratu eta aukera berdinak izatea giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak aitortuak izan, baliatu eta erabiltzeko.
- b) Pertsonak bizitzaren alderdi desberdinetan dituzten baliabideen eta denboraren erabileren oreka, bereziki eremu pertsonalean, profesionalean, familiarrean edo lanekoan.
- c) Prozesu politikoan antolaketa, hobekuntza, garapena eta ebaluazioa, halako moduz non genero-berdintasunaren ikuspuntua txertatzen baita politika guztietan, maila guztietan eta etapa guztietan.
- d) Emakumeen eta gizonen tasen arteko aldea, agerian uzten duena emakumeen eta gizonen artean dagoen desparekotasuna baliabideen banaketan eta boterea eskuratzean, testuinguru zehatz batean.

14. Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean zein arlo EZ da berariaz jorratzen?

- a) Irakaskuntza.
- b) Osasuna.
- c) Justizia.
- d) Komunikabideak.

15. Zein hizkuntzatarako da aplikagarria Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna?

- a) Euskara, katalana, galiziera eta valentziera.
- b) Asturiera, aranera eta aragoiera.
- c) Euskara eta katalana bakarrik.
- d) Euskara, katalana, galiziera eta asturiera.

16. Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen arabera, Nafarroako Aldizkari Ofiziala:

- a) Euskarri elebidun bakarrean argitaratuko da.
- b) Ele bitan argitaratuko da, baina ez aldiberean.
- c) Ele bitan eta aldibereko edizio bananduetan argitaratuko da.
- d) Ohiz kanpoko ale bereziak ez dira ele bitan argitaratu behar.

17. 9/2017 Foru Legeak hurrengo udalerria sartu zuen eremu mistoan, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legea moldatuz:

- a) Gares.
- b) Eguesibar.
- c) Lizarra.
- d) Aranguren.

18. Euskararen Erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, ele biko testuetan, bereziki errotulazioari dagokionez, Administrazio Publikoek:

- a) Hizkuntza bakoitzeko euskarri ezberdinak erabiltzea lehenetsiko dute.
- b) Gaztelaniazko testua goian edo ezkerrean jarriko dute.
- c) Hizkuntza bakoitzean letra tamaina ezberdinak erabili ahalko dituzte.
- d) Bi hizkuntzak tamaina eta ikusgarritasun berarekin jarriko dituzte.

19. Euskararen Erabilera Nafarroako Administrazio Publikoetan arautzen duen 103/2017 Foru Dekretuaren arabera, ele biko lanpostuetan egiaztatu beharreko euskararen ezagutza maila:

- a) A1etik C1eraino izanen da.
- b) B1, B2 edo C1 izanen da, lanpostuaren ezaugarrien arabera.
- c) A1etik C2raino izanen da.
- d) B2 edo C1 izanen da, lanpostuaren ezaugarrien arabera.

20. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren estatutuak onartzen dituen 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, Euskarabidearen egituraren dago:

- a) Gramatika Lantzeko Atala.
- b) Administrazio Atala.
- c) Aholkularitza Atala.
- d) Arlo Juridikoko Atala.

21. Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren estatutuak onartzen dituen 303/2019 Foru Dekretuaren arabera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalaren araututako eginkizuna EZ da:

- a) Nafarroako Euskararen Mediateka kudeatzea.
- b) Herritarrei hizkuntza eskubideen berri ematea.
- c) Terminologiaren eremuan jardutea.
- d) Esparru sozioekonomikoan euskararen presentzia eta erabilera bultzatzea.

22. Nafarroako Biziguneen Izenak Erabiltzeko Irizpideak arautzen dituen 5/2018 Foru Dekretuaren arabera, biziguneen idatzizko adierazpenetan:

- a) Barrak (/) eta marratxoak (-) ezin dira erabili.
- b) Errotulazioan marratxo (-) erabiltzen denean, honen ondoan tarte utzi daiteke.
- c) Barra (/) erabiliko da izen elkartuetarako.
- d) Barra (/) erabiliko da izen elebiduna duten biziguneetarako.

23. Nafarroako Biziguneen Izenak Erabiltzeko Irizpideak arautzen dituen 5/2018 Foru Dekretuaren arabera, Nafarroako toki entitateen izen ofizialei dagokienez:

- a) Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioaren izendegia da erreferentziazkoa.
- b) Nafarroako Toki Entitateen Erregistroa da erreferentziazkoa.
- c) Euskaltzaindiaren herri izendegia da erreferentziazkoa.
- d) Lurraldearen Antolamendurako zuzendaritzaren herri izendegia da erreferentziazkoa.

24. *Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarrizko jarraibide teknikoak argitalpenaren arabera, zein dago modu egokian adierazita?*

- a) Tuter-Tudela.
- b) Tudela / Tuter.
- c) Tudela (*Tuter*).
- d) Tudela/Tuter.

25. *Nafarroako toponimia erabiltzeko oinarrizko jarraibide teknikoak argitalpenaren arabera, zein dago modu egokian adierazita?*

- a) Pitillaseko aintzira / Laguna de Pitillas.
- b) Laguna de Pitillas – Pitillasko aintzira.
- c) Laguna de Pitillas / Pitillasko aintzira.
- d) Laguna de Pitillas - Pitillaseko Aintzira.

26. Nafarroako Gobernuak departamentuek Foru Agindu bidez onartutako hizkuntza planak:

- a) Plantilla organikoan merezimenduak ezartzea proposatzen dute.
- b) Zuzendaritza eta burutzetan hizkuntza eskakizunak ezartzeko prozedura proposatzen dute.
- c) Lan hizkuntzari ematen diote lehentasuna.
- d) Zerbitzu hizkuntzan eragitea proposatzen dute.

27. Nafarroako Gobernuako departamentuek Foru Agindu bidez onartutako hizkuntza planen arabera, hizkuntza paisaiari dagokionez Euskarabideari dagokio:

- a) Errotulazio elementu berriak ezartzea.
- b) Langileen identifikazioa diseinatzea mahai gaineko kartelen, pinen, sinadura digitalen eta bestelakoen bidez.
- c) Gobernuaren irudia erabiltzeko irizpide orokorrak ezartzea.
- d) Unitate bakoitzeko errotulazioaren diagnostikoa osatzea.

28. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoaren arabera, euskararen gaineko paradigma eta ikuskera berri baterantz joateko, zein da gainditu beharreko ikuskera?

- a) Euskara aise bereganatzen den hizkuntza da.
- b) Euskara gizarteratzeko eta garatzeko balioei josiriko hizkuntza da.
- c) Euskara batez ere tradizioarekin eta iraganarekin loturiko hizkuntza da.
- d) Euskara erabilera mugagabeko hizkuntza da.

29. Nafarroako Gobernuaren Euskararen I. Plan Estrategikoan 7 ardatz ezartzen dira, eta ardatz horietako bakoitzaren aurkezpenean, azpтитulu gisa lelo esanguratsu bat paratzen da ardatzaren muina hobeki ulertzeko. Zein ardatzetan aipatzen da “etorkizuna” azpтитulu gisa?

- a) Lehenengoan; gizarte erabileran.
- b) Bigarrenean; hiltun berriak izenekoan.
- c) Hirugarrenean; zerbitzu publikoak izenekoan.
- d) Laugarrenean; prestigioa eta erakargarritasuna izenekoan.

30. Inkesta soziolinguistikoen arabera, Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak aztertuta, 25 urtean (1991tik 2016ra), euskaraz ongi mintzatzen diren nafarren bilakaera hau izan da:

- a) 1,6 puntu hazi da kopurua.
- b) 3,4 puntu hazi da kopurua.
- c) 6,2 puntu hazi da kopurua.
- d) Kopurua egonkor mantendu da.

31. 2016ko Inkesta soziolinguistikoak Nafarroan jasotako datuen arabera, euskara sustatzearen aldekotasun portzentajerik altuena duten nafarrak zein dira?

- a) 16-24 urte bitarteko gazteak.
- b) 35-49 urte bitarteko helduak.
- c) 50-64 urte bitarteko helduak.
- d) 65 urtetik gorakoak.

32. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketen ezaugarriak aztertuta, Nafarroan 2021ean egindakoa barne, ondorengo lau ezaugarri hauetatik zein da okerra?

- a) Elkarriketa oro hizkuntza bakar batean sailkatu da.
- b) Kaleetan entzundako elkarriketetatik atera da informazioa.
- c) Neurtzaileek bikoteka egin dituzte behaketak.
- d) Pertsonen ezaugarriak ez da bildu.

33. 2021ean egin zen Hizkuntzen erabileraren kale-neurketaren lau ondorio paratu ditugu hemen, baina bat ez da zuzena. Aukera ezazu ondorio okerra Nafarroan neurturiko euskararen erabilerari dagokionez:

- a) Haurrak dira euskaraz gehien aritzen direnak.
- b) Gazteen erabilerak gora egin du.
- c) Helduek gazteek baino gehiago erabiltzen dute euskara.
- d) Azken bost urteotan, behera egin du zertxobait erabilerak, baina datua ez da oso esanguratsua.

34. 2018an Nafarroako Estatistika Erakundeak bildu zituen datu soziolinguistikoak kontuan hartuta, aukera ezazu zuzen dagoen egiaztapena:

- a) Biztanleriaren % 60,8 da euskalduna eremu euskaldunean, % 16,4 eremu mistoan eta % 5,6 eremu ez euskaldunean.
- b) Biztanleriaren % 60,8 da euskalduna eremu euskaldunean, % 12,4 eremu mistoan eta % 2,6 eremu ez euskaldunean.
- c) Biztanleriaren % 70,8 da euskalduna eremu euskaldunean, % 16,4 eremu mistoan eta % 5,6 eremu ez euskaldunean.
- d) Biztanleriaren % 80,8 da euskalduna eremu euskaldunean, % 10,4 eremu mistoan eta % 2,6 eremu ez euskaldunean.

35. 2018ko Nafarroako Estatistika Erakundeak bildu zituen datu soziolinguistikoak kontuan hartuta, euskaldunen bilakaera aztertuta, 2011tik 2018 bitartean Iruñeko euskaldunak:

- a) % 9,1 izatetik % 8,8 izatera pasatu dira.
- b) % 9,1 izatetik % 9,4 izatera pasatu dira.
- c) % 9,1 izatetik % 10,2 izatera pasatu dira.
- d) % 9,1 izatetik % 12,4 izatera pasatu dira.

36. Euskaltzaindiaren arauak gaiaren arabera multzokatuta daude. Ondoko hauetatik, zein gai EZ da multzo horietakoa?

- a) Onomastika.
- b) Sintaxia.
- c) Esakuneak.
- d) Aditza.

37. Euskaltzaindiak ahoskerari buruzko araua eman du, EBAZ izenekoa. Hurrengo definizioetatik zeinek biltzen du arauaren helburua?

- a) Ahozko hizkuntza estandarra da.
- b) Euskara batua ahoskatzeko modu bakarra da.
- c) Euskalkiak ahoskatzeko era da.
- d) Komunikabideetan ahoz jarduteko araubidea da.

38. Euskaltzaindiaren Hiztegian, azpisarrerek:

- a) Atzizkidun hitzak erakusten dituzte.
- b) Euskalkietako formak erakusten dituzte.
- c) Sinonimoak eta antonimoak erakusten dituzte.
- d) Esapide edo hitz elkartuak erakusten dituzte.

39. Euskaltzaindiaren Hiztegian, webgunean, erdal ordaina bilatu nahi duenak non egin dezake bilaketa, hiztegian bertan dagoen estekaren bidez?

- a) Adorez 5000 hiztegian.
- b) IVAPeko Adminiklopedian.
- c) "Itzultzaile neuronal" izeneko aplikazioan.
- d) Euskalterm terminologia banku publikoan.

40. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da ZUZENA?

- a) Zientzilari.
- b) Ekonomialari.
- c) Antzerkialari.
- d) Zaintzari.

41. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein dago GAIZKI?

- a) Batipat.
- b) Bat-batean.
- c) Benetako.
- d) Behinik behin.

42. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da DESEGOKIA?

- a) Andonik bere arrazoia eman du.
- b) Miren bere etxera joan da.
- c) Kirola bere neurrian egin behar da.
- d) Liburuak beren tokian jarri behar dira.

43. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da DESEGOKI eraturiko hitza?

- a) Erlojari.
- b) Erlojugile.
- c) Erloju konpontzaile.
- d) Erloju saltzaile.

44. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da idazkera ZUZENA?

- a) Nafarroako unibertsitate publikoa.
- b) Nobel Saria.
- c) Euskararen Aholku Batzordea.
- d) Iruñeko udala.

45. Euskara Batuaren Eskuliburuaren arabera, zein da idazkera DESEGOKIA?

- a) Salda ere dago.
- b) Edatea merezi du.
- c) Non-nahi dago.
- d) Sor-marka lortu du.

46. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein testu-genero dagokio A1 mailari?

- a) Katalogo komertzialak, turismo-gidak eta publizitatea, informazio zehatzekoak eta deskribapen teknikoekin (ulermena, idatziz).
- b) Gertaerak, pasadizoak, ohiko gaiez, eta kontaketa historikoak, emozio-graduak xeheki adieraziz (ulermena, adierazpena eta elkarreragina, ahoz eta idatziz).
- c) Albiste errazak eta titularrak: herri-aldikarietakoak edo auzoetako aldizkarietakoak: istripuak, gertaera bitxiak, kirola, efemerideak... (ulermena, ahoz eta idatziz).
- d) Eguraldiaren iragarpenak, horoskopoak... (ulertu, ahoz eta idatziz, eta ozen irakurri).

47. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, ahozko ebaluaziorako zein esaldi dagokio A1 mailari?

- a) Hitzak eta hitz-multzoak oso lokailu errazen bidez lotzen ditu (eta, edo, baina...).
- b) Bere mailako testu ulergarriak sortzen ditu oztoporik gabe, eta eman nahi dituen ideiak hartzaileak interpretatzen ibili behar gabe.
- c) Puntuazio-marka gehienak ongi erabiltzen badaki: komaren ohiko erabilerak, marratxoaren erabilera errazenak, eten puntuak...
- d) Badaki egoera orokorretan kontuan hartzen nori zuzentzen zaion, zertarako eta gaia zein den.

48. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein diskurtso-gaitasun dagokio B1 mailari?

- a) Ez du, oraindik, erregistro bereizketarik egiten, ez ulermen ez adierazpen-mailan.
- b) Hizkuntza-funtzio asko gauzatzen ditu, erregistro neutroa erabiliz: zalantzak argitu, kexak adierazi, balorazioak egin...
- c) Gizarte harremanetan oinarritzko funtzioak gauzatzen ditu: norbait aurkeztu, eskerrak eman, informazioa eskatu...
- d) Eguneroko gizarte-harreman errazak eratzen ditu, hitz eta formula arruntenak erabiliz eta ulertuz.

49. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, gaitasun gramatikaletako zein eduki dagokio B1 mailari?

- a) Baldintzazko adizkiak (alegiazkoak, oraina). NOR laguntzailea (izanen balitz...litzateke...) NOR-NORK laguntzailea (hartuko balu...luke...) NOR-NORI laguntzailea (etorriko balitzait...litzaidake...) NOR-NORI-NORK laguntzailea (emango balit...lioke...).
- b) Aditz iragankorrak eta iragangaitzak: NOR-NORK, NOR-NORI-NORK, NOR eta NOR-NORI aditzak bereizi (sartu du, dio, da, zaio).
- c) Agintera: partizipio burutua (Etorri! Segi! Ez margotu!), NOR laguntzailea (zaitez) eta joan-etorri trinkoak (zoaz).
- d) Subjuntiboa: NOR, lehenaldia; NOR-NORK lehenaldia; NOR-NORI orainaldia, NOR-NORI-NORK lehenaldia.

50. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein diskurtso-gaitasun dagokio B2 mailari?

- a) Desberdintasun soziolinguistikoetara moldatzen da, eta euskara gizarte-harremanetan malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzen du.
- b) Ongi bereizten ditu erregistro formala, informala, ofiziala eta espezializatua, eta intimoa.
- c) Hasia da bere adierazpenean ere erregistro formalean eta informalean jarduten, nahiz eta erregistro neutrorako joera handia duen, oraindik ere.
- d) Bere espezialitateko hainbat testu eta testu ofizial batzuk ere ekoizten ditu.

51. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein gaitasun gramatikal dagokio B2 mailari?

- a) Ikasleak hiztegi orokor zabala du, gai ezagun zehatz eta orokorretan (gaurkotasuneko gaiak, bere interesekoak...).
- b) Ikasleak ia edozein gairen gainean hitz egiteko hiztegi zabala du (giza-harremanak, lana, dibulgazio-gaiak, kultura).
- c) Ikasleak eguneroko bizitzako gai gehienei buruz jarduteko oinarritzko lexikoa ezagutzen du (harremanak, aisialdia, auzoa...).
- d) Ikasleak egoera eta gai ezagunei buruzko jarduera arruntetan parte hartzeko moduko gaitasun lexikal-gramatikala du (osasuna, kirola, oporrak, bidaiak...).

52. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, zein testu-genero dagokio C1 mailari?

- a) Gutunak, mezu elektronikoak, interneteko sare sozialak eta blogak, harreman sozialak izateko, lagunartean eta zerbitzuetako arduradunekin.
- b) Solasaldi arinak, telebistan nahiz aurrez aurre, ohiko kontuez.
- c) Katalogo komertzialak, turismo-gidak eta publizitatea, informazio zehatzekoak eta deskribapen teknikoekin (ulermena, idatziz).
- d) Zuzendariari gutunak eta iritzi-artikuluak, formalak eta neutroak, komunikabide idatzietan (ulermena eta adierazpena).

53. HENAC ezartzen duen 42/2011 Foru Dekretuaren arabera, ahozko ebaluaziorako zein esaldi dagokio C1 mailari?

- a) Badaki solaskideari ulertu ez duena argitzeko eskatzen, oso era errazean eta esamolde eginak erabiliz.
- b) Jariotasunez eta bat-batean jarduten du, naturaltasun handiz, eta ahaleginik egin gabe.
- c) Kontaketa edo deskribapen errazak jariotasun aski handiz egiten ditu, elementuen sekuentzia linealaren bidez.
- d) Eguneroko kontuetan esku-hartze errazak egiten ditu, esan behar duena era ulergarrian adieraziz, eta truke laburretan ongi samar moldatuz.